



*Europa Zero Zabor komunitateak
ahalduntzeko eta baliabideekin
duten harremana berraztertzeko
sortu zen. Gero eta eskualde
gehiagotan, herrietako taldeak,
enpresak eta hirietako
funtzionarioak urrats nabarmenak
egiten ari dira, gure gizartean
hondakinak ezabatzeko.*

KASUAREN AZTERKETA **#1**

Azaroa 2014

CAPANNORIREN HISTORIA

Italiako iparraldean kokatuta dagoen Capannori herriak Europako udal-birziklatze tasarik handienetakoa du. Zero Zabor udalerri hau erabaki politiko tinkoez zein komunitatearen parte hartzeaz emaitza berritzaileak lor daitezkeenaren eredu da. Kasu-azterketa honek egundaino lortutako arrakasta aztertzen du.

“Zerbait garrantzitsua bada, jatorri xumea du” esaldiak Italiako Capannori hiri txikian du zentzua, inon zentzurik badu. Izan ere, erraustegi baten eraikuntza geldiarazteko egin zuten kanpaina txiki baina tinko batek Zero Zaborreko mugimendu nazional oso bat eman zuen.



- Biztanleria: 46,700
- 2007an sinatutako Zero Zaborraren Estrategia
- Hondakinak % 40an murriztea 10 urtetan
- Egun, hondakinen % 82a gaika biltzen da

Labeen borroka

Capannori, 46.700 biztanleko hiri, Toscanako Luccatik hurbil, hondakinak errausteko ezinbesteko bidean zihoan, Italia osoan bezala. Erraustetan oinarritutako Europako iparraldeko hondakinak kudeatzeko eredua –zabortegiekin lotutako ingurumen eta gizarte arazoak saihesteko eta energia sortzeko helburu zuena– nagusitzen ari zen Italian, azken hori hondakinen kudeaketaren inguruan arazo izugarria eta presazkoa jasaten ari baitzen. Tokiko medikuen erakundeek, baita gobernuz kanpoko ingurumen erakundeek ere, erresistentzia gutxi jarri zuten. Izan ere, itxuraz dilema konponezin batentzako konponbide ez hain txarra bezala ikusten zuten errausteta. Merkataritza interesek eta Europako iparraldetik jasotzen zuten presioek erraustegia egiteko itxuraz itzulirik gabeko biderantz eraman zituzten.

Inork ezin zuten errauskailuen inbasioaren aurkako defentsa tinkorik antolatu. **Eztabaida publikoan erraustetak hondakinak sorrarazten dituela, birziklapenarekin lehiatzen duela,**

iraunkortasunaren erronka zailtzen duela, ustelkeria bultzatzen duela eta isurpen toxikoak askatzen dituela ez zen esan, ezta hondakinen barneko energiaren gutxieneko bat soilik eskura daitekeela.

Capannori bezalako komunitateak bakarrik geratu ziren errauskailuen eraikuntzaren aurkako borrokan. 1997an, Rossano Ercolini, lehen hezkuntzako irakaslea, konturatu zen bere eremuan planifikatu zuten errauskailuak kaltegarriak izan zitezkeen eraginak sortuko zituela biztanleen osasunean eta inguruan.


Erraustetan eta Zero Zaborrean mundu mailako aditu Paul Connet doktorearen laguntzarekin batera, gainerako biztanleak komunitatean errauskailu bat eraikitzeak ekar zezakeen arriskuaren inguruan kontzientziatzen jardun zuen. Mugimendu horrek instalazioaren eraikuntza blokeatzea lortu zuen, eta hortik lasterrera errauskailuaren mehatxua zuten eskualdeko beste hiru komunitatera zabaldutako zen.

Ze beste aukera dago?

Errauskailuaren aurrean beste aukera bat ezartzearen ardura hartuz, Ercolinik erabaki zuen aukera posible bakarra hondakinak murriztea zela. Xede horrekin, tokiko bilketa-enpresaren, ASCIT en, zuzendaritzaren ardura hartu zuen, eta hondakinak atez ate biltzeko programa pilotu bat sortu zuen. Urtebete ondoren, postu hori bertan behera utzi, eta erraustetaren kontrako kanpaina egin zuen berriz ere Italian. **2007an, Ercolinik Capannoriko udalerrria konbentzitzea lortu zuen European Zero Zabor**



Evolution of separate collection and waste generation in Capannori 2004-2013 (in Kg/person/year)



Estrategia bat ezartzen lehenak izateko, 2020rako zabortegira zero zabor isurtzeko ardura hartuz.

Atez ateko bilketa modu progresiboan ezarri zen udalerri osoan 2005 eta 2010 artean. Herri txikietan hasi zen, non akatsak hasieratik identifikatu eta zuzendu

ziren, eta ondoren, udal barruti osora zabaldur zen 2010ean.

Hortik aurrera, udalerriko hondakinen % 82a jatorrian banatzen zen, eta hondakinen % 18a uzten zen soilik zabortegira eramateko.

2012an, udalerriko hainbat komunitatek hondakinak sortzeagatik ordaindu beharreko

tarifa berri bat (PAYT, ingelesez) implementatu zuten. Sistema horrekin, etxe bakoitzeko hondakinak biltzeko maiztasuna hondar-hondakinen poltsetan mikrotxipak dituzten pegatina batzuk erabiliz neurtzen da, ibilgailu biltzailearen irakurgailu baten bidez eskaneatu ondoren.

Tarifa berriak eremu horietan banaketa eta prebentzio hobea sustatu zuen, eta bilketa selektiboaren tasak %90eraino bultzatu zituen.



Gardentasuna eta kontsulta

Tokiko politikoek onartzen dute atez ateko bilketaren eta Zero Zaborraren beste hainbat neurriren esparruan izandako arrakastaren arrazoia izan zela auzokoei ahalik eta goizen eta modurik parte-hartzaileenean kontsulta egitea.

Ideiak biltzeko eta Zero Zaborraren Estrategia bat egiterakoan tokiko biztanleek modu aktiboan parte hartzea lortzeko bilerak egin ziren toki publikoetan.

Inprimatutako informazioa udalerriko helbide guztietara bidali zen. Eremu zehatz batean atez ateko bilketa sartu baino aste batzuk lehenago, boluntarioek hondakinak banatzeko kitak banatzen zituzten etxebizitza guztietan, edukiontzi ezberdinekin, beharrezko poltsekin eta inprimatutako informazio gehigarriarekin.

Bboluntarioak auzokoek eskema berriaren inguruan izan zitzazketen galderei erantzuteko trebatu ziren, eta talde osoaren lankidetzarekin erraz, berehala eta modu eraginkorrean parte hartu zuten.

Erromako La Sapienza Unibertsitateak egindako ikerketa batean, Italiako hiru komunitateren (Capannori, Erroma, Salerno) atez ateko bilketa alderatzen zen, eta aurkitu zen Capannoriko parte-hartzea (biztanleen % 99ak sailkatzen ditu bere hondakinak) eta gogo-betetze maila (% 94) handiagoak izan zirela beste bi komunitateetan baino.

Capannoriko auzokideen ehuneko handi batek (% 98,6k) aldaketen inguruan nahikoa informazio jaso izanarekin, bilketan egongo ziren aldaketen inguruko bileretan parte hartu izanarekin (% 46) eta hondakinen bilketaren inguruan informazio gehiago eskatzeko nora jo jakin izanarekin (% 91) lotuta dago guzti hori.

Ekonomikoki bideragarria den konponbidea

“Udalerriak 2009an 2 milioi euro baino gehiago aurreztu zituen. Aurrezko horiek hondakinak murrizteko azpiegituretarako, eta auzokoei zerga finkoak %20an murrizteko erabili dira. ASCITen 50 langile kontratatzeke finantza-iturria ere izan da”


Hondakin gehienak zabortegi oso garestietara ez bidaltzearen ondorioz aurreztutakoak, gehi birziklapen instalazioei materialak saltzeagatik irabazitakoak erakusten du eredu horrek bere burua mantentzen duela ekonomikoki. Are gehiago, 2009an 2 milioi euro aurrezteko lortu zuen. Aurrezki horiek hondakinak murrizteko azpiegituretan eta auzokoei zerga finkoak % 20an murrizteko erabiliko dira. Gainera, ASCITen 50 langile kontratatzeke finantza iturri ere izan da, eta ondorioz eskualdeko enplegua ere sustatu da.

Konpostatzea

Hondakin organikoaren zatikia banatzea bilketa sistema berriaren elementurik arrakastatsuenetako bat izan da. ASCITek hondakin organikoen atez ateko bilketa sarri egiten du, eta horiek eskualdeko konpostatze instalazio batera eramaten dira. 2010ean Joraform konpostatze-makinak instalatu ziren Capannoriko jangela publikoetan. Etorkizunean tokiko eta taldeko konpostatze-makina horiek auzokoen taldeetan zabaltzea ahal izango lirateke, eta horrek hondakin organikoen bilketa, garraio eta tratamendua % 30 eta 70 artean murrizten lagunduko luke.



Elkarlanerako gogoz, lehia albo batean utziz, fabrikatzaileek era positiboan erantzun dute, eta kafe ekoizleek kapsulei alternatiba bat bilatzeko ikerketa hasi dute.



Baten zaborra besteen altxorra da. Berrerabilpenaren aukerak.

Auzokoei ere etxean konposta egitera animatu zaie. Horrela, 2200 etxebizitzetan jaso dituzte konpostagailuak eta konpostatze tekniken inguruko doako informazioa. Etxean konposta egiten duten etxebizitzek hondakinen zergan %10eko deskontua izango dute, pizgarri moduan. Era berean, tokian bertan gainbegiraketa eginez etxebizitzaren % 96ak konpostagailuak zuzen erabiltzen dituztela egiaztatzen da. Egun eremu horretan biometanizazioarako instalazio bat ezartzeko aukera aztertzen ari dira.

Hondakinik gabeko sistema bat diseinatzen

Horrela, kafearen kapsulak orokorrean gehien botatzen ziren artikuluetako bat bezala identifikatu ziren. Ondorioz, Ikerketa Zentroa kafe-fabrikatzaileekin bildu zen, esaterako, Nespressoekin eta Illyrekin, beste aukera biodegradagarri edo birziklagarri batzuk lantzeko.

Era berean, errefusean behin erabiltzeko pixoihal kopuru handia izaten dela kontuan izanik, udala diruz lagundutako pixoihal erabilgarriak eskaintzen hasi zen tokiko familiei. Konfrontazioarako baino lankidetzarako ikuspuntuarekin, fabrikatzaileak modu positiboan erantzun dute, kafe-fabrikatzaileak hasi dira aztertzen kapsulez gain ze beste aukera gon daitezkeen.

Birziklapen tasak hobetzeko lan egiteaz gain, berrerabilpenean ere azpimarra handia egin da. Udalak bere Berrerabilpen Zentroa ireki zuen Lammari herrian 2011n, non beharrezkoak ez diren baina oraindik egoera onean dauden arropak, oinetakoak, jostailuak, etxetresna elektrikoak eta altzairuak bezalako gauzak konpon daitezkeen, behar izanez gero, eta saltzen jarri prezio oso onetan. Horrela, artikuluko horiek ez dira zabortegetara joaten, eta ezinbesteko gizarte-funtzioa betetzen da. Egoitza hori bere jardura zabaltzen ari da, izan ere, 2012an 93 tona objektu jaso zituen.

Rossano Ercoliniren arabera, Lammari 'Ekologia irla'ren (bolumen handiko hondakinak eta gainerakoak berrerabiltzeko zentroaren) kopuru errekorrak erakusten


“2012an 93 tona objektu eramane ziren Berrerabilpen Egoitzara, non berriz ere konpondu eta arrazoizko prezioan saldu ziren”

dute **gure kultura aldatzen ari da, hein handi batean udal politikengatik. Garai batean jendeak dena popatik botatzen zuen arren, gaur egun berreskuratzen diren**

gauzek ingurumenari mesede egiteaz gain, beharrezko produktuak behar dituztenengana iristea ere ahalbidetzen dela ohartu dira. Egoitzak birziklapenaz gainera trebeztan ere ematen du formakuntza, esaterako, josteta lanetan, tapizerian eta aroztegian, eta berrerabilpenaren baloreak eta praktika ahal bezainbeste zabaltzen ditu.

Kafe-fabrikatzaileak kapsulez gain ze beste aukera gon daitezkeen hasi dira aztertzen.

Udalak ere Herriko familiei pixoihal berrerabilgarriak eskaintzen dizkiete.



Aitzindariak hondakinak saihesten

Capannoriren lidergo-eremua hondakinen prebentzioa izan da bereziki **–2004 eta 2013 artean pertsona bakoitzak sortutako hondakinak % 39an** murriztu ziren (1,92 Kg eta 1,18 kg artean/ pertsonako/urteko)–, eta murrizketa hori handitzen joango dela aurreikusten da, hondakinak sortzeagatik ezarritako ordainketa sistema zabaltzeari esker (PAYT, ingelesez). Hau oraindik ere azpimarragarriagoa da: biztanle bakoitzeko errefusan (edo banatu gabekoen) kopurua 2006an 340 kg izatetik, 2011an 146 kg izatera igaroz, alegia, %57 jaitsi zen. Danimarkan biztanle eta urte bakoitzeko (2011) 409 kg hondakin sortzen dira. Ondorioz, lorpena zein handia izan den argi ikus daiteke.

Horrek esan nahi du, birziklapen tasak gehitzeaz gain, tokiko agintariak jatorrian hondakinak sortzea murrizteko modua bilatu dutela. Zero Zaborraren estrategia bezala, 11 ekimen-eremu zehaztu dira. Agian horien artean agerikoena solteko edo kupeleko produktuen salmenta da. Izan ere, udalak pizgarri fiskalak eskaini zizkien tokiko enpresa txikiei, produktu arruntak bezeroen ontzietan bete ahal izateko, esaterako, garbikari likidoak. Jakien Effecorta denda Capannorin sortu zen 2009an, eta tokiko 250 jaki eta edari baino gehiago eskaintzen ditu soltean. Bertako biztanleek pasta, ardoa, olio eta beste hainbat behar eros ditzakete inongo ontziratzerik gabe.

Kate motza – onespina tokiko nekazaritzarako

Bi autozerbitzu-gune ireki ziren esnea betetzeko, kate motzeko jakien banaketa eredu erabiliz. Alegia, guneak tokiko nekazarien

kooperatiba baten bidez hornitzen dira, eta kontsumitzaileek ontziratze instalazio edo instalazio txikizkari baten bitartekotzarik gabe erosten dute, eta ondorioz, prezio baxuagoak ordaintzen dituzte, eta nekazariak irabazi gehiago jasotzen dituzte litro bakoitzeko. **Arrakasta izugarria izan da. 200 litro esne saldu dira egunero gune horien bitartez, eta bezeroen % 91k bere ontziak bete ditu, horrela, 90.000 botila inguru hondakinen sistematik kanpo geratu dira.**

Beste ekimen batzuen artean, kanpaina bat egin da botilaratutako uraren ordez iturriko uraren kontsumoa handitzeko (italiarrak Europan botilaratutako ur mineralaren kontsumitzaileak handienak dira), erabilera bakarrek mahai tresnak kentzea eta eraikin publikoetako, eskolak barne, mahai tresnak, oihalezko poltsak hiriko 17.800 etxebizitzetan eta beste 5.000 enpresetan banatzeko, eta pixoihal berrerabilgarriak eta osasun-produktuak udalerriko farmazietan biltegitartzeko. Ekimen horiek guztiak norabide zuzenean doazen ekimen proaktiboak emaitzak dira. Horrela, auzokoak gero eta gehiago jabetzen dira, eta gero eta gehiago jartzen dituzte martxan bertutezko kontsumo-ohiturak.

Nabarmentzeko komunitatea

Ikuspegi proaktiboa eta holistikoa hartzeak, eta politika horiek sortzeko etapa guztietan auzokideen parte-hartzea lortzeko ahalegina funtsezko elementuak izan dira Europa mailan hondakinak saihesteko lehian Capannori buru izan dadin. Era berean, Zero Zaborren Udalerriaren Sarean duen postu nabarmenaren bidez, beste hainbat komunitaterentzako eredu bihurtu da, birziklapenaren helburu hutsak betetzea baino haratago joateko.

Bere lider irudimentsu eta arduratsuek aukerak ikusi dituzte arazoen ordez, eta biztanleekin egin duten konpromiso gardenaren bidez, ekimen hau komunitate oso baten garaipen bihurtu dute.

Egun, Europako ehunka udalerririk jarraitzen dute Capannoriko eredua.

**Aimee Van Vliet, August 2013
Zero Waste Europeek itzulua**



“Esnea hornitzeko autozerbitzu eta betetze-guneek 200 esne litro inguru hornitzen dituzte egunero. Horrela, 90.000 botila inguru hondakinen sistematik at utziaz.

Iturriak

www.ucdg-cisdp.org/sites/default/files/Capannori_2010_en_FINAL.pdf
www.comune.capannori.lu.it/sites/default/files/segreteria_sindaco/capannori-verso-rifiuti-zero-2011-r2.pdf
www.comune.capannori.lu.it/node/11408
www.lemonde.fr/planete/article/2013/06/19/capannori-la-cite-italienne-qui-montre-la-voie-du-zero-dechet-en-europe_3432602_3244.html
www.effecorta.it



Informazio gehiago hemen:

www.zerowasteeurope.eu
www.facebook.com/ZeroWasteEurope

Harremanetarako:

info@zerowasteeurope.eu
Twitter @zerowasteeurope